

BORROKATZEN EZ DENEAN GEHIAGO GALTZEN DA

Botereak, bere interesak defenditzeko, gizartean beldurra eta indiferentzia hedatzen du. Beldurrak garaitzen duenean ez dago demokraziarik. Politikak alda daitezten borrokan ari garenok lagundu egin behar diogu gure jendeari beldurra gainditzeko. Beldurra gainditzeko, hain zuzen, defentsa kolektiboa daukagu.

Botere ekonomikoak politika txotxongilo moduan erabiltzen du, eta nahi du guk sinestea mobilizazioak alferrikakoak direla. **Hori ez da egia.** Borrokatzen ez denean, gehiago galtzen da. Borrokatzen ez denean galdutakoa ez da berreskuratzen. Hori erakusten digu historiak. Murrizketak ezartzen dituzten alderdiak ez lirateke hain kezkatuta egongo -jota daude mobilizazioek eraginik izango ez balute.

Borroka soziala ez da sekula eraginik gabekoa izan. Borrokak izan dira beti aldaketaren motorra, baita ideia politiko berrientzako pizgarri eta eskubide eta askatasunen jatorria. Hau ere historiak erakusten digu.

Ez dugu greba orokor bateratua egin. Ezinezkoa izan da, CCOOek eta UGTk nahiago baitzuten Rajoyk sortutako adituen batzordean egon, botere finantzieroen ordezkariekin batera (12tik 9), bi urtean egingo den hirugarren pentsioen erreforma erabakitzeke. Aditu horiek Rajoyri esango diote honek entzun nahi duena, hots, dagoeneko Bruselarekin hitzartuta duena. CCOO eta UGT ez daude hemen beste nonbait daudelako.

Greba orokorrak hiru ardatz ditu: Pairatzen ditugun politikak salatzea; alternatiba baten alde egin eta bera gizarteratzea, eta pobrezia gero eta gehiago hedatzea onartzen ez duten gune sindikal, sozial eta politikoa finkatzea.

1.- Politika hau salatu, pertsonarik ahulenei beharrezko ez diren sakrifizioak ezartzen baitizkie. Langileei, pentsiodunei, gizarte-prestazioak jasotzen dituztenei, langabeei...

Baieztapen bat. Pobrezia hemen eta mundu guztian erabakitako zerbait da. Ez da naturala edo berezkoa. Guztiok bizimodu duina izateko adina aberastasun badago. Pobrezia politika jakin baten emaitza da, aberastasuna metatu egin behar dela esaten duen politika; orekak hautsi zirelako etorri da; hots, politika kapitalaren esanetara jartzearen ondorio da, eta hala gertatu da, azken muturreraino gainera. Sekula ez da gaur adinako desorekarik eta menpekotasun politikorik ezagutu.

Gobernuak salatu. Esaten dute erreforma bakoitza, murrizketa bakoitza, azkena izango dela. Gezur hutsa. Bakoitzaren ondoren beste bat etorriko da, baina aurrekoa baino latzagoa. Krisia da eskubideak eta lanpostuak suntsitzeko erabiltzen duten aitzakia; koartada perfektua. Ez dugu ontzat ematen gobernuak kapitalarekin otzan izatea eta gizartearen erreakzioari jaramonik ez egitea, entzungor egitea.

Patronala salatu. Lanari gizatasuna kendu nahi diote. India eta Txinaren adibidea aipatzen digute. Zergatik ez, bada, Bangladeshekoa, non 1.000 emakume hil baitira baldintza negargarrietan lan egiten zuten fabrika txikitu denean? Patronalak badu eredu bat, eskuinak aldarrikatzen duena: krisiari irtenbide erraza eman nahi diote, "guk ordaintzen ditugun zergak jaitsi eta, neurri berean, gastu soziala". **Eurek "ohiko gastua" deitzen diote.** Arazoa da gobernuek eskatzen duen guztia ematen diotela.

Gobernuek patronalaren ikuspuntuarekin bat egiten dute: Enplegua galtzen denean ez da ugazaben errua (jarduera ekonomikoa egozten zaio, gaizki doalako); sortzen denean, berriz, euren meritua da. Hori ideologia hutsa besterik ez da, eskatzen duen guztiari men egiteko. Pentsamolde horrek politikari asko kutsatu ditu: patronalarentzat pentsatu eta lan egiten dute.

Zer esaten die Rajoyk bankuei? “Segi espekulatzen, zuloak geuk estaliko baititugu!” Esan eta egin: zor publikoarekin espekulazioan dabiltza. Orain esaten dute beste 80.000 milioi euro behar izango direla bankuentzat. Hain garesti ordaindu ziren auditoria haiek ez zuten piperrik balio!

Gure eginbeharra: adi egon, aurreikusi eta zer datorren azaltzea. Zer dela eta ez dute Urkulluk, Barcinak eta Aldundiek esaten defizita malgutzeko 'lorpena', hain pozik hartu dutena, pack berean datorrela pentsioen beste erreforma basati batekin? Egunkaria irakurtzen duen edonork badaki hori. Helburuak, erretiratzeko adina 67 urtetik gora atzeratzea, pentsioak KPlaren arabera era automatikoki eguneratzeko araua baztertzea, eta oinarri arautzailea kalkulatzeko aintzat hartzen diren urteak KPlarekin eguneratu ez daitezela finkatzea. PPren inguruko aholkularitza batek kalkulua egi du: pentsioak %22 eta 45 bitartean jaitsiko dira.

Hori ez da erreforma bakarra izango. Beste erreforma laboral bat, langabezia babesaren erreforma, Administrazioaren erreforma zerbitzu publikoak pribatizatzeko...

Gasteizko eta Iruñeko gobernuak poztu egiten dira defizita hamarren batzuk gehitu dezaketelako, baina hori larrutik ordainduko dugu, prezioa pentsioen hondamendia baita. **Nork aipatzen du horrelakorik politikan?**

Ustelkeria hor dago. Onartu ezinekoa da ustelkeria medio auzipetutako alderdi eta agintariak horrelako politikak ezartzen jarraitzea. Beren erabakiek politikan indargabetu egin beharko lirateke, eta ondasunak desjabetu.

2.- Alternatiba baten alde. Jende xeheak politikaren beharra du, babes dezan.

Begibistakoa da greba orokor hau, greba orokor guztiak bezala, politikoak direla! Ez gara ergelak.

Egoera soziala oso larria da, eta irtenbide ausartak eskatzen ditu. Ezin dugu itxurak egiten ibili; egoera latza da.

“Alternatibarik ez dago”, esaten digute oposizioan zeudenean “pase forala” aipatzen zuten horiek. Egoera honetan politikaren ezaugarri nagusia obeditzea da. Haatik, horrela ez dago ez politika sozial, ez autogobernu, ez prozesu subiranista garatzerik. Politika errebindikatu behar da, baina modu erradikalean. Lotsagarria da: askok politika erabili egiten dute, baina ez dute ezertan sinesten. Alternatiba baztertzea onartzea litzateke politika esparru politikoak bereganatzeko lehia hutsa dela, eta ez duela ondorio praktikorik. Hau guk ez dugu onartuko.

Alternatibak badaude. Alternatiba badago, botere ekonomikoari aurre egiteko borondatea izanez gero. **Bestela, ez.** Europar eredia auzitan jartzeko alternatiba, kapitalak, kapitalaren mesedetan marraztu baitu eredu hori; zorraren eta defizitaren diziplina amaitzeko alternatiba; enplegu duinaren, soldaten eta pentsio publikoen alde egiteko; aurrekontu sozialak posible egingo dituen fiskalitatea iristeko; lan-harremanen eta gizarte-babesaren euskal esparruaren alde egiteko... Alternatiba gauzatzeko politikak planto egin eta argi esan behar du: “Ez dugu egingo; ez diogu gure jendeari beharrezko ez diren eraso gehiago egingo”.

Alternatiba fiskala. Eztabaida fiskalari orain arte patronalak betoa ezarri dio. Bada, alderdi politikoak bildu dira eta inork ez daki bakoitzaren jarrera zein den. Gai honetan dagoen gardentasun eza ezin da onartu. Alderdi bakoitzak jarrera finkatu behar du, hau gizarteari jakinarazi eta zehaztu eztabaidaren zein puntutan dauden planto egiteko prest. Ez badute egiten, fiskalitatea berriro euskal Tea Partyaren esku utziko dute.

3.- Esparru sozial eta sindikala politiken aldaketa sendotzeko

Politika eta ideiak gatazka sozialari esker berritzen dira; ez dago halakorik bake soziala nagusi denean.

Botereak gizartea lokartzen du, eta ez ditu jasaten kontraboterean militatzen ari garenok. Botereak ez du gurekiko itun edo akordiorik. Hori esanagatik, benetan beste zerbait nahi dute, eskubideak suntsitzeko prozesuan gu ere bidelagun izatea.

Kontrabotereko militante garenok botere ekonomikoaren intolerantzia eta botere politikoaren mespretxua jasan behar ditugu, haien asmoetarako oztopoa baikara.

Debate interesatu bat piztu da, greba orokorra erabilgarria ote den ala ez. Grebari kargu hartzen diotenek epaitzen al dute kemen berdinez gobernuek ezartzen dituzten politikak baliagarri ote diren? Izan ere, politika hauek baliagarriak dira? Sasi-intelektualei ezin zaie hauspo handirik eman; ez dute proposamen alternatibo bat ere egiten, baina gure esku dagoen horri balioa ukatzen diote. Batzuk historiaz hitz egiten dute orainik ez daukatelako, eta beste batzuk etorkizunera begira jartzen dira egiten ari garena gutxiesteko. Hau ezin da onartu.

Egiten ari garenak balio handia du.

1. Gobernuei eta patronalari ez diegu babesik ematen.
2. Interpelatzeko gauza den esparru sindikal eta sozial alternatibo bat finkatzen dugu. Esparru honetara biltzen gara langileak, pentsiodunak, langabeak, gazteak, gizarte-prestazioak jasotzen dituztenak eta seme-alabentzako gizarte askoz injustuagoa utzi nahi ez duten gurasoak.
3. Hori guztia medio mobilizatzen gara euren aurrean.

AMAIA. Emaitzak orain ikusi nahi ditugu. Ez da erraza izango. Lorpen sozialen eraispena azkar doa, eta eraikitzea, berriz, lan nekeza da. Eurek indar handia dute. Fase hau luzea eta gogorra izango da. Ez gaizki egiten dugulako; lanak izango ditugu, politikak ez duelako bere burua erreibindikatu nahi, ez duelako kaleko interesen ordezkari izan nahi. Errua ezin zaie egotzi alternatibak eskaini eta mobilizatzen diren sindikalismoari eta gizarte-mugimenduei; aitzitik, ardura politikak du, lekukoa ez baitu hartu nahi.

Baten batek galdetzen badigu... **Zer egingo duzue bihar?** Lanean jarraitu. Bakoitza dagokion esparruan, eta estrategikoa, partekatua dela uste dugun horretan lankide izanez.

Horretarako Euskal Herriko GUTUN SOZIAL bat egingo dugu:

- Bera egiterakoan parte hartzea sustatzeko.
- Alternatibak marraztu eta gero gizarteratzeko.
- Hortik abiatuta politikari zuzenean interpelazioa egiteko.
- Eta guztia mobilizazio sozial gehiagorik indartzeko. Gaur demokrazia kalean islatzen da, parlamentuetan baino areago.